

HITZALDIA CONFERENCIA

Isabel Ortiz de Errazti

SAMURAI ARMADURA ARMADURA DE SAMURÁI

2017ko otsailaren 18a
18 de febrero de 2017

12:00



ARABAKO ARMA MUSEOA • MUSEO DE ARMERÍA DE ÁLAVA

Fray Francisco ibilbidea, 3 • Paseo de Fray Francisco, 3
945 18 19 25 • museoarmeria@araba.eus
01007 VITORIA-GASTEIZ

Arabako Arma Museoko armadura hau 1850 aldera fabrikatu zuen, Edo aldian, Minamoto No Yoshiichi Nakako (Tokushima probintzia, Shikoku irla) arma maisuak.

Samurai armadurak objektu eder eta konplexuak dira, hainbat materialez eginak. Armak eboluzionatu ahala, estiloak aldatuz joan ziren. Denboraren poderioz, arinago eta malguago bihurtu ziren, bai zalditeriarentzat, bai oinezko soldatu taldearentzat.

Materialak (altzairua, larrua, papera eta egurra) beren artean nahasten ziren zetazko eta kotoizko kordoi koloretsuekin. Gero, lakazko geruza leun eta distiratsu bat ematen zitzairen gainaldean, hezetasunetik babesteko. Azkenik, klan bakoitzaren apaindurak eta intsigniak jartzeko zitzaizkien, gudariak batailan izan zuen estatusa adierazteko.

Armadura ia osorik gordetzen da, galdu den osagai txikiren bat kenduta. Tosei Gusoku bat dugu, Domaru motakoa, ia 15 kg-koa. Euskarria gehienbat altzairuzkoa bada ere, armaduraren elementu batzuk apurkorak dira oso. Ia bi menderen ostean, zetazko eta kotoizko lazoek ezin dute metalezko elementu pisutsuak eusten jarraitu. Argiak erraz egiten die kalte brokatu eta lakei; horregatik, egoera ahulean daude.

Kaskoa -zirik garrantzitsuena- bertikalki errematxatutako burdinazko xaflez osatuta dago eta, aurrealdean, kobrezko eta eztainuzko bost tximeletaz apainduta. Alboko "hegaletan" latoizko bi Mon gordetzen dira, familiako klana ezagutarazteko. Kasketaren goiko aldeak apaindura galdu du batailan aireztapen txiki bat eskaintzen zuen zuloaren inguruan. Kaskoaren barrualdean fabrikatzailearen sinadura grabatuta dago. Lepoa ezpatarekin egin daitezkeen ebazkiez edo geziez babesteko, lau xafla kurbatu ditu, altzairu lakatuzkoak. Horiek era mailakatuan bildu eta kordoi bikoitzez eutsita daude.

Maskararen eginkizuna gehiago da estetiko babestekoa baino. Bibotea du eta aurpegi erdia baino ez du babesten. Altzairu lakatu beltz eta gorritz eginda dago. Ressei estilokoa da, bisaia gogorrekin etsaia uzteko.

Koraza trantsizioko pieza da, Europako eragina duena, horizontalki errematxatutako altzairuzko xaflez osatua. Mitologia budistaren figurak irudikatzen dituzten apaingarriak ditu, kobrea, eztainu eta urrezkoak. Sorbaldetarako bi babes ditu zintzilik, egur lakatuzkoak eta metalezko errefortzu batzuekin, besoak altzaitzen direnean galtzarbeak babesteko. Babesa aregotzeko, zango babesak eta oinak estalita daude. Besoetan esku babesak daude, metalezko xaflez eta nanban erako sare begiz eginak; horiek zetaz eta larruz lotuta daude, apaindura oparoarekin. Gonatxo konjuntoko pieza konplexuenetakoa da. Honek ere xafla malgu lakatuak ditu ehuneko euskarri baten gainean, eta izterretara eta sabel azpira lotzen dira. Elementu honen lakak du kontserbazio egoera txarra.

Erronka handia da lehenengo armadura hau zaharberritzea, material bakoitzak sakon ezagutu beharreko arreta berezia behar duelako eta tratamendu bakoitza inguruan dituen gainerako materialei egokitu behar zaielako. Gainera, aukera ematen digu armaduraren osagaiak ikertzeko, eta konjuntuko bikain honen materialak aztertu eta ikertzeko. Kontserbazio tratamendua amaitu ondoren, erakusgai jartzeko sistema berri bat erabiliko denez eta armadura japoniar erara muntatuko denez, ikusgarriago eta babestuago egongo da datozen urteetarako. ◆

Esta armadura del Museo de Armería de Álava, fue fabricada hacia 1850 durante el período Edo, por Minamoto No Yoshiichi, maestro armero de Naka (provincia de Tokushima, isla de Shikoku).

Las armaduras de samurái son objetos bellos y complejos hechos de diversos materiales. Los estilos fueron transformando a medida que evolucionaban las armas. Con el paso del tiempo, se aligeraron y volvieron más flexibles tanto para la caballería como para la masa de soldados a pie.

Los diferentes materiales (acero, cuero, papel y madera) se enlazaban entre sí con coloristas cordones de seda y algodón. Luego se protegían de la humedad con una capa superficial de laca, suave y brillante. Finalmente se decoraban con ornamentos e insignias de cada clan que señalaba el estatus del guerrero durante la batalla.

La armadura, salvo por la pérdida de algún elemento menor, se conserva casi completa. Es una Tosei Gusoku, tipo Domaru, de casi 15 kg. Si bien el soporte es mayoritariamente de acero, algunos elementos de la armadura son sumamente frágiles. Tras casi dos siglos, los lazos de seda y algodón no pueden seguir soportando los pesados elementos metálicos. Los brocados y las lacas que se dañan fácilmente por la luz están en un estado delicado.

El casco – la parte más importante – está formado por placas de hierro remachadas verticalmente y, en la parte frontal, está decorada con cinco mariposas de cobre y estaño. En las "alas" laterales se conservan dos Mon de latón que identifican el clan de la familia. La parte superior del casquete ha perdido la decoración en torno al agujero que ofrecía cierta ventilación durante la batalla. En el interior del casco se encuentra grabada la firma del fabricante. Para proteger el cuello de un corte con la espada o contra las flechas, lleva cuatro láminas curvas, de acero lacado, que se pliegan en cascada y van sujetas por dobles cordones.

La función de la máscara más que protectora es estética. Ésta tiene bigote y cubre solo medio rostro. Está elaborada en hierro lacado en negro y en rojo. Es de estilo Ressei, con facciones duras para intimidar al enemigo.

La coraza es una pieza de transición, de influencia europea, que está formada por placas de acero remachadas horizontalmente. Decoraciones de cobre, estaño y oro que representan figuras de la mitología budista. Dos protecciones para los hombros de madera lacada y refuerzos de metal, caen verticalmente para proteger las axilas cuando se alcan los brazos. Para aumentar su defensa, las espinilleras y los pies van cubiertos. Los brazos llevan guanteletes de placas de metal y malla tipo nanban unidas con sedas y cueros ricamente decorados. La faldilla es una de las piezas más complicadas del conjunto. También está hecha de placas flexibles lacadas sobre un soporte textil y van atadas sobre los muslos y la parte inferior del abdomen. La laca de este elemento es la que peor estado de conservación presenta.

La restauración de esta primera armadura supone un gran reto porque cada material necesita una atención específica que debe conocerse a fondo y cada tratamiento debe adaptarse al resto de materiales circundantes. Además nos ofrece la oportunidad de investigar los componentes de la armadura, examinar y analizar los materiales de este conjunto excepcional. Una vez acabado el tratamiento de conservación, un nuevo sistema de exposición y el montaje de la armadura a la manera japonesa, aportará vistosidad y protección para los próximos años. ◆

